

«Hurrengo finalak igoal txikiagoa izan behar du, beste apustu mota bat... Oraindik asmatu gabe daukagu»

Solaskide bikaina da; patxada, eskarmentua eta entzuteko gaitasun finak igartzen zaizkio. Bertsozale Elkartek izan duen bigarren lehendakaria da, Imanol Lazkanoren eskutik hartu baitzuen kargua 2005ean. Diskrezioaren eta egoten jakitearen maisua da gabiriarra, oharkabea bezala pasatzen den presentzia pausatua. Estilo horrekin josi du Bertsozale Elkarteko lehendakaritza, orain zortzi laguneko talde batek gidatuko duena.

2005ean hartu zenuen lehendakari kargua Imanol Lazkanoren eskutik. Zein erronka ikusten zenituen aurrean?

Aldaketen aroan genbiltzan bete-betean. Huraxe izan zen BECeko hasiera. Aparte, burujabe izan nahian genbiltzan, geure produktua geuk manipulatu edo tratatu nahian. Alegia, bertsoa besteren esku zegoen –telebistan, irratan eta denean– eta gure baliabideekin kudeatu nahian genbiltzan. Hezkuntzan sartu nahian ere bai. Geroztik etorri dira Bertsoa.eus, hedapeneko taldea, produkzio-etxea, Ikastolen Elkartearekin hitzarmena, bertso eskoletan 30.000 ikaslerengana iristea... Apustu oso handiak zeuden.

Txikitik handira begira.

Gure asmoa zen senak agintzen ziguna egitea. Nork kudeatu behar du hobeto produk-

tua sortzen duenak edo parte denak baino? Baserritarrak berak lortu behar luke bere produktua kudeatzea. Eta gure helburua hori izan da.

Esaterako, orain Lazkao Txiki buruzko dokumental bat egin nahiko bagenu, baditugu baliabideak. Geu gara aditu eta geuk kudeatzen dugu. Eta geuk egindakoari ezin diogu puntarik atera. Gaizki eginda baldin badago, geure hanka sartzea, eta, ondo eginda baldin badago, geure meritua.

Azkenean Marxen teoria da: produkzioko bitartekoak ez baditugu gure esku, ez daukagu osotasuna. Komunismoak ez dauka arrakastarik orain. Baina egia da indar gutxi daukagunok, txikiok, produkzioko bitartekoek ematen diguten ezagutza, jakinduria, ziurtasuna, aukera aniztasuna... horiez guztiez baliatu behar dugu. Bestela, beti txiki, ahalke eta ausardia gutxiko izatera kondenatuta izango gara.

Geuk kudeatu, geuk egin eta geuk kontrolatu?

Ni ez naiz dena guk egitearen aldekoa. Gure arrakasta handienetakoak izan beharko luke bakoitzak bertsoaren alde, bertsoarekin gozatuz, nahi duen hura egiteko aukera izatea, ondo egiteko baldintzarekin. Baina gauza oinarritzakoak eta ardatzak bertsogintzatik eta bertsolaritzatik kudeatu beharko lirateke. Xenpelar Dokumentazio Zentroa, hezkuntzan erabili beharreko material pedagogikoa edota bertso-udalekuen helburuak zehaztea, kasu. Horiek administrazioak zehaztu behar baditu, ikaragarri jakin behar du, eta, gainera, inoiz ez du gure gustura egingo. Beraz, egin ditzagun geuk. Guk egin dezagun autokritika eta administrazioak jar ditzala

hori ondo egiteko lain bitarteko ekonomiko, kontrolarekin noski. Nik ez dut nahi kontrolik gabeko diru publikorik.

Hezkuntza arautuan egin den lana garrantzitsua izan da.

Hautatu nindutenean, boto bat izan nuen kontra. Eta kontrako botoa eman zidan esan zidan: «Nik eman diat kontrako botoa. Eta eman diat hik ez dekelako sinisten hezkuntza arautuko proiektuan».

Nik beti esan izan dut gu proiektu horrekin sekulako inbertsioa egiten ari garela; bertsolariak dabilta proiektu horretan. Eta, berez, Euskal Herriko lur eremuan dauden unibertsitateek sortzen dituzten irakasleek bertsolaritza gelan emateko gaitasuna, borondatea, gogoia eta trebezia izan beharko lukete. Eta ez badute, horretarako bitartekoak eskaini. Baina gureak berez ez luke hezkuntzan hainbesteko inbertsioa egiteko eremua izan behar. Hori da nik beti defendatu dudana. Eta horrekin batera, honakoa ere defendatu dut: ez dut nahi gure bertsolari gazteak hezkuntzako funtzionarioen kutsu denak hartuta heztea eta jartzea. Hortik ondorioztatzen zuten ez nuela sinisten proiektu horretan. Sinisten dut hezkuntzan dugun eraginean eta egiten ari garen horretan. Baina iruditzen zait hori berez unibertsitateak bere formakuntzan txertatu beharko liekeela irakasleei.

Irakasle eskolan ari denak espezifikoki landu beharko luke bertsogintza bere formakuntzan?

Andaluzian flamenkoa landu beharko lukeen bezala edota Espainiako beste leku askotan rapa landu beharko lukeen bezala –hemen ere landu behar-

IÑAKI MURUA JAUREGI

BERTSOZALE ELKARTEKO LEHENDAKARITZA UTZI BERRI

Hamahiru urte eman ditu Bertsozale

Elkarteko lehendakari; foku aurrean

batzuetan, eta, atzean, besteetan. Berdin


administrazioarekin hartu-emanean berdin

bertsolariari bizkarrean igurtzia ematen

oholtzara igo aurretik. Egon behar zuen

tokian zegokion eran.

Amagoia Mujika Telleria



Argazkiak: Luis JAUREGI ALTZO | FOKU

ko da denbora asko baino lehen-, iruditzen zait bertsogintzak espezializazioa izan beharko lukeela.

Duela lau pabost urte Kuban izan ginenean hango repentista veterano batek erakutsi zidan bertsotan ortografia irakasteko metodoa. Dena zen hitz neurtuz eta errimatuz. Oso-oso elegante. Espainiako Hezkuntza Ministerioa ez dakit nora begira dagoen. Hego Amerikan badauzka adibide ederrak. Han zer kopiatua eta zer ikasia badute. Baina mezua kontrolatu nahi dute, eta, lehenetasuna mezua kontrolatzea baldin bada, beste guztia hankaz gora jartzen da.

Bertsoa ikasteko erreminta bezala proposatzen duzu.

Nik hala erabiliko nuke. Gure amonek 90 urterekin oraindik ere Andaluziako probintzia denak buruz dakizkitezoka saltoan ikasi zituztelako. Hori da Hezkuntzaren arrakasta han-

dienetakoa; kantatuz eta errimatuz ikasi zituztenak, jolasean eta zeharka ikasitakoak, buruan zeharo grabatuta dituzte. Iruditzen zait hezkuntzan erabili beharko litzatekeen tresna oso interesgarria dela bertso-gintza. Baita hizkuntzaren normalizazioaren bidean ere.

Bertsozale Elkartearen bueltan dabilenak familia handi bat dirudi eta bertso eskoletatik elikatzen da; bertsolariak ez ezik, bertsozaleak, gai-jartzaileak, antolatzaileak, epai-leak, aulkiak jartzen dituztenak... sortzen ditu.

Mentalitatea, jarrera eta azertu handia dago jatorrian, elkartean emandako bigarren pauso estrategikoan. Lehenengo izan zen bere ildo estrategikoa markatzea; transmisioa, sustapena, ikerketa... Eta bigarren pausoa izan zen Bertsolari Elkarte izatetik Bertsozale Elkarte izatera pasatzea. Askotan esaten dugu txantxa to-

nuan guk, bertsolariok, bada-kigula zer langile klase garen eta zaleak sartu ezean ez genuela taxuzko ezer egingo. Alegia, zaleak behar genituela lanerako. Baina aldaketa hori filosofia aldaketa bat da.

Munduko beste bertsolaritzetara joan garenean, sortzaileak jainkotuta dago. Argentinan, esaterako, sortzaileak bere bertso eskolak dauzka patentatuta, berak nahi dituen ezaugarriak jarrita. Portugalen, sortzaileak jatetxe propioak dauzka eta jangela horretan berak kantatzen du, hori bere esparrua da. Guk ez daukagu horrelakorik; sortzaileak askoz eskuzabalagoak gara hemen. Ulertzen dugu gure sortzeko gaitasuna besteekin batera lan eginez aberasten dela. Denona dela, eta, existituko bagara, gure hizkuntza behar dugula. Hartu eta emaneko harremana da gurea; bertsotan ari garenok herri osoarekin bat eginda aritu behar dugu. Filo-

sofia oso bat da eta gure burua jainkotzearekin ez dugu ezer egiten, kalte besterik.

Andoni Egaña 2009ko BECe-ko finalean agur esan zion txapelketari. «...nahiz dife-rentzia badagon egon jeizte-tik jeistera/ ni oso harro pa-sako naiz naturala horixe da/ behien aulkiak aipatzetik behien aulkiak jartzera».

Hori munduko beste edozein bertsolaritzan, Egaña bezala txapeldun eta punta-puntako posizioan zegoen beste inori ez zitzaion okurritu ere egingo. Eta zaleentzat ere despres-tigio moduko bat izango zen. Guk, aldiz, hori zaindu egin dugu, horretan sinistu egiten dugu eta kutsatu egin dugu. Baina inongo apaltasun faltsu-rik gabe, hori baita gure exist-entzia. Gu jaialdi batera bago-az, ahal dugun ondoena kantatu nahi dugu –geu baika-ra onura hori jasotzen lehe-nak-, baina beti gara kontzien-

te jaialdi hori antolatzen nor-bait aritu dela eta horri esker joan garela hara. Oso desberdi-na da zure jatetxeko jangelan aritzea edo zure bertso-esko-lak negozio ikuspuntu batekin patentatzea. Eta gauzak ondo egiten ari dira bai Argentinan eta bai Mexikon, baina gu bes-te espiritu batekin ari gara.

Lehendakari kargua utziko duzun arren, seguru ez zarela Elkartetik oso aparte ibiliko.

Lehen bazkide bat nintzen eta ardura bat hartzea eskatu zida-ten. Orain bazkide bat gehiago izango naiz. Eta iruditzen zait ondoko funtzioa bete behar dudala: eduki dudak karguari esker jaso dudak perspektiba aplikatzea eta postu horretan hamahiru urte pasa dituenaren zapatiletatik iritzia emate-a. Esperientziaren ikuspegia eman nahi nuke, zalantza da-goenean edota ikuspegi anitza behar denean, hortxe egoten asmatu. Iruditzen zait ekarpen hori egiteko posizioan bana-goela eta hortik pasatu dena-ren ahotsa entzun dadila foro horietan. Are gehiago orain, gogoeta urtea izanik.

Gogoeta. Hori ere «continuum» bat da Bertsozale El-kartean.


Bai, hala da. Ea aurten beste hamar urterako ildo bat jartzen dugun. Lehenago gogoeta sei-zortzi urterako egiten zen eta jarritako ildo eta erronkak ja-rraitzen saiatzen ginen epeen barruan. Orain, aldiz, gogoeta etengabekoa dela iruditzen zait, egunerokoa. Eta hori da benetan garrantzitsua. Gero, tarteka egiten ditugun gogoe-taldi horiek ahots gora eginda-ko ariketa dira; egunerokoa ondo bideratuta egoteko tarte-ka egin beharrekoak. Gogoeta etengabekoa da, derrigorrez,

eta sortzaileek jartzen dizkigute gogoetarako bide asko. Hala ere, hutsune batzuk ere badi-tugula iruditzen zait. Adibi-dez, generoaren esparruan egiten ari garen gogoeta ez dut uste egiten ari garena denik; emakumeek egiten dutena da. Uste dut gizonezkoa atzera ge-ratzen ari dela Bertsozale El-kartean eta bertsogintzan ere, eta hori izan daiteke akats na-gusietako bat; alegia, gizonez-kook hori emakumeen kontua dela pentsatzea.

Bertsozale Elkartek pauso garrantzitsuak eman ditu bi-de horretan.

Bertsozale Elkartea publikoki eztabaidagaiak jarri eta horiei puntak ateratzen ari den jen-dea bateratzen duen elkartea izanik, eta sortzaileak hori iza-nik bere arma saio guztietan, batetik behartuta zegoen gai hori lantzera, eta, bestetik, premia handia zuen. Bertso-gintzan astakeria asko esan eta entzun ditugu genero ikus-pegitik, orain burutik pasatu ere egingo ez litzaizkigukee-nak. Bai, dezente landu dugu. Hala ere, esango nuke Bertso-zale Elkartean generoaren gaia lantzen ari diren pertsona ze-hatz batzuk ari direla erritmo hori markatzen. Eta, noski, txapelketan ere puntako pos-tuetan badabilta, ba dezente ikusten da. Hori punta da, bai-na bestelakoa da atzetik dato-rren corpus guztiari hori ku-tsatzea. Uste dut oraindik lan asko dagoela egiteko.

Gure belaunaldia tradiziona-la izango da eta kontserbado-rea akaso, baina gai horietan hamasei urtekoak ez ditut ikusten gu baino askoz aurre-ratuago. Gai horiek entzuten ohituta daude, baina gero bes-telako ohiturak ikusten ditut elkarri hitz egiteko duten mo-



duan. Bertsozale Elkartean ere berdina ikusten dut; puntan genero gaia lantzen ari dire-nek eta tiraka ari direnek eta hogeit urtetik beherako neska eta mutil gazteek ez dituzte ikuspegi berberak. Noski, ho-gei urtetik beherakoek bizi du-tena eta berrogeita hamar urte dituenak bizi izan duena ez di-ra konparagarriak. Zer landua oraindik asko dago.

Aurrerantzean talde batek hartuko du zure tokia.

Proiektuaren gidaritza hartu-ko dute. Lehendakaritza, pro-pioki, inork ez du hartuko. Eki-po batek erantzungo dio ekipo zabalago baten proiektuari. Azkenean, ni lehendakari izan naizen hamahiru urtean, boz-keta soilik bi aldiz erabili dugu gauzak erabakitzeko. Beti ezta-baidatu eta aho batez erabaki-tzeko helburuarekin jardun gara eta lortu egin dugu. Har-tutako erabakiak zure senti-tzeko modu bat erabili behar duzu eta zure sentitzea ez da bozketa hogeit baten kontra edo biren kontra irabaztea. Az-kenean, kontra agertu diren horiek ez dira sekula hartuta-

ko erabakiarekin bat sentitu-ko. Taldeak daukan abantaila da lehen lehendakari bakarra-ren ikuspegia zegoela, eta, orain, nahitaez, ekipo ikuspegi bat txertatu behar zaiola el-karteko zuzendaritza organo guztiei. Lehendik ere bazegoen joera, baina orain zortzi kide-ek ekarriko duten ikuspegi desberdinen multzoa erantsi-ko zaio. Zortzikote horretan ere batzuk 40 urteren bueltan daude eta beste batzuk 25 urte inguruan. Maniobra asko egin beharko da lantaldea kohesio-natu eta bat egiteko. Horretan asmatzea da helburua.

Talde horrentzat ez ezik, el-kartearentzat ere azterketa bat da proiektuari era horretara ti-ra egin nahi izatea. Baina bizi-tza konplikatzen ohituta gau-de eta asko interesatzen zaigu.

Zure lan karga asko aldatuko al da?

Bai. Lehendakariak, gauzak ondo doazenean, aurpegia ja-rri eta loreak jasotzen ditu. Beste bolada batzuetan, berriz, aurpegia eman egin behar du. Ni zorte handikoa izan naiz eta loreak jasotzea egokitu zait

gehiago. Asmatu dugulako ere bai, baina dena parean tokatu zaidanaren errezeloa daukat. Orain, zer? Zama arintzen doa-kidala sinisten hasita nago justu-justu. Baina 120 soldata-peko dituen, 30.000 ikasleren-gana iristen den eta daukan abiadura daukan elkartearen lehendakaritza utzita, arindu bat hartuko dut.

Aurpegia jarri eta aurpegia eman diozu. Izango duzu me-morian iltzatuta une gozorik.

Momentu bereziena 2017ko BECeko finala izan da. Ni nago-enetik, 2005etik, izan den maila altueneko finala izan dela esatera ausartuko nintza-teke. Inori ez diot aditu inongo pegarik. Umorea ere uste dut sekula baino gehiago txertatu dela. Nire agurreko txapelketa eta finala izanik, hain ondo atera izanaren aho gustuare-kin joatea oso pozgarria da. Despedidakoa hain borobila ateratzea zoragarria izan da.

Une txarragorik izango zen, seguru.

Txarrak ere izan dira. Lehen-dakaritza hartu baino lehena-

«Esango nuke Bertsozale Elkartean generoaren gaia lantzen ari diren pertsona zehatz batzuk ari direla erritmoa markatzen. Hori punta da, baina bestelakoa da atzetik datorren corpus guztiari hori kutsatzea. Uste dut oraindik lan asko dagoela egiteko»

gotik ere bai. Lazkao Txiki due-la 25 urte hil zen eta guretzat jainko txiki bat izan zen. Bere omenaldian planto egitea, ez kantatzea... gauza gogorrak izan ziren haiek.

Administrazioarekin dauz-kazun harremanetan ere une gogorrak eta tentsio egoerak izaten dira... Guk administra-zioari elkarlana eskaini izan diogu beti. Baina maiz admi-nistrazioak dirua berea balitz bezala kudeatzen du. Gu ez go-az eskean, elkarlana eskaintze-ra baizik, aurrez jarrita dauka-gun diru bat guk kudeatzeko eskatzera. Administrazioak jar ditzala jarri behar dituen ira-gazkiak eta kontrolerako neu-rriak eta guk kontuak mahai gainean garbi jarriko dizkiogu. Baina elkarlana da bidea eta hori ulertu behar du adminis-trazioak. Uste dut azken urte eta erdian euskararen ingu-ruan beste posizio bat hartzen ari dela eta pozten naiz. Izan ere, administrazioa, gustatu edo ez, gurea da eta herri ho-nek bere burua kudeatzeko sortutako tresna bat da. Beste gauza bat da politikoek berena balitz bezala erabiltzea.

BEC distiratsua eta jendetsua da. Distiratsuegia?

Behin baino gehiagotan esan dut: 14.000 pertsona ez da ezer. Ikaragarri da, baina, urtean 2.500 saio egiten ditugula kontuan izanda, bakoitzean ehun pertsonako batezbestekoa jarrita –eta seguru asko gehiago izango dira–, 25.000 dira. Baina kontabilizatzen ez ditugunak ere badaude; telebistatik entzuten dutenak, irratitik... Horiek denak kontatuz gero, zer da ba 14.000? Eguneroko gauza txiki horiei esker betetzen da BEC.

BEC erraldoia da, handia, distiratsua... Orain ja jende asko ari da galdetzen: hurrengo zer? Futbol zelai bat aipatzen dute batzuek. Nik ezetz esango diot beti horri. Hurrengoak igoal izan behar du txikiagoa, beste apustu mota bat, beste erroka bat... Hurrengo oraindik asmatu gabe daukagu.

BECen azpian dauden itzalak asko dira; gaien trataera, hezkuntzako emaitzak, generoa... hainbeste gauza dauzkagu egiteko. Igoal txapelketaren emaitzek bigarren maila batera igaro beharko lukete eta ikerketan ari diren eta aditu bihurtzear dauden gazte horien emaitzak jarri behar ditugu lehen lerroan; gure hizkuntzari eta bertsogintzari buruz ateratako ondorioak... Hori guztia hain isilik eta hain oharkabean pasatzea ez da sanoa eta hor kalkatu behar dugu gehiago. Baina, tira, horri orain etorri den zortzikoteak erantzun beharko dio.

Bertsozale Elkartearen logika jendartean nagusi den logikaren kontrakoa da askotan. Patxadaz diozu akaso hurrengo finalak txikiagoa izan behar duela. Bertso Eguna ere arrakastatsua zen Donostian

eta, hala ere, norabidea aldatu eta gauza txikiagoa egin duzue.

Kulturako enpresa bat gara akaso, baina gure jarduna ez da helburu ekonomikoetan hasi eta bukatzen. Gure helburuak anitzak dira, iritziak bezalaxe. Aniztasun horretan egokiena zein den asmatzea da gakoa. Egia da Bertso Eguna arrakastatsu zegoela Donostian, Kursaaen. Baina une bat iritsi zen antzu sentitu ginena. Sortzen zuen tentsioak, estresak eta exijitzen zuenak ez zuela merezi iritzi genion, eta, beste modu batera, tentsio gutxiagorekin, eraiki behar genuela Bertso Eguna. Oraingo formula ez da hain jendetsu eta mediatikoa, baina igoal emaitza interesgarriagoa izan daiteke. Ikertzen ditugun alorrak eta tesiak esku artean hartuta, egun hori izan daiteke egun akademiko interesgarria, hitzaldiz eta gogoetaz jantzia. Bertsoa egiteko moduez eta elkartegintzari buruz gogoeta egiteko eguna izan daiteke. Ni asko kezkatzen nau orain elkarteak duen tamaina ekonomikoaren eta esku artean di-

tuen erronken tamainaren bilakaera nola gidatu, elkartea nola egin. Hasierako egiturari jarraiki ari gara eraikitzen. Jatorriko baserri etxeari etxeordekoak erantsi eta aurrera egiten ari gara eta pentsatzen dut etxeordeko batzuk igoal etxe bihurtu behar ditugula edo lehengo jatorriko etxe horri bere lekua eman eta zer izango den ondo pentsatu behar dugula. Zeregin handiak ditugu.

Lehendakaritzaren ardura hartu duen lantaldeari erabaki garrantzitsuak hartzea egokituko zaio seguru.

Hala beharko luke. Ni harrituko nauten erabakiak hartzen ez badituzte, nik egindakoaren ildo berari jarraitzen ari direnaren seinale izango litzateke. Horrek ez du esan ni harritzeko moduko erabakiak hartu behar dituztenik. Baina gustatuko litzaidake gauza berriak eta ausardiaz egiten ikustea. Eta ez daukat zalantzarik hala egingo dutela. Egin behar dutena egin behar dutela ere, erabakiak aho batez hartuz eta bertako langileekin eta borondatez lanera doazenekin sintonian

eta elkar entzunez egin dezatela.

Geratu al zaizu arantzarik?

Tira, iruditzen zait Mintzola daukagula noraez puntu batean. Azken txanpan emandako urrats batzuekin gustura nago, iruditzen baitzait Mintzolak, ahozketasunaren institutu modura funtzionatzea nahiko genukeen ente horrek, Euskal Herrikoa beharko lukeela. Jaur-larritza oraintxe dago hanka bat barruan duela eta gustura gaude. Oraindik Mintzolako Patronatuko buru izateari ez diot utzi eta gustatuko litzaidake utzi aurretik ahozketasuna lantzeko benetako institutu bat bihurtzea, Euskal Herriko herrialde guztien ordezkari-tzarekin, bertsolaritza eta bertsolaritza ez den esparruetan ere eragingo duena.

Zein garrantzitsua den ahozketasuna, ezta?

Ahozketasuna beti da garrantzitsua. Hizkuntza batek eraiki egiten zaitu, modu batera. Eta beste hizkuntza batek, beste modu batera. Euskarak, kontzienteki erabiltzen den hiz-

kuntza bat den neurrian, izaeran ere eragina dauka. Ni hemengo nire ikasleei soldaduska garaian madrildarrei sumatzen nien kutsua igartzen hasia nago. Haiek elkarri deitzeko «*tú, hijo puta, ven aquí*» esaten zieten eta guri ez zitzaigun horrelakorik okurritzen. Hemen orain hizkera hori nagusitzen ari da, non eta Goierri. Zenbat estandarizatzen ari garen hizkuntza hegemonikoen eraginez. Gure hizkuntzak baditu asko aberasten gaituzten ezaugarriak. Eta beste hizkuntza bat erabiltzen dugunean, hori guztia baztertzen ari gara.

Ahozketasuna ikaragarri garrantzitsua da. Finean, euskaldunok beti izan dugun famari eusten ari gara ahozketasuna gutxi lantzen badugu: egiten onak eta saltzen txarrak. Hala izan da eta badirudi horrela izan behar duela betirako. Ba, ez, horri kontra egin behar diogu. Eta iruditzen zait bertsogintzan ari direnek koska ateratzen diotela herritar arrunt ondo hitz egiten duen horri ere. Eta eskarmentu horrek asko jantzen du pertsona.

